



HERRIENTZAKO ETA PLANETAREN- TZAKO BIZITZA DUIN BATEN ALDEKO DEKALOGOA

*Congreso
Bizitza Jokoan
Kongresua*

DECÁLOGO POR UNA VIDA DIGNA PARA LOS PUEBLOS Y EL PLANETA



HERRIENTZAKO ETA PLANETARENTZAKO BIZITZA DUIN BATEN ALDEKO DEKALOGOIA

“Orain arteko joera mantentzen badugu industrializazioan, ingurumenaren kutsaduran, elikagaien produkzioan eta baliabideen agortzean, lurra bere hazkundearen mugara iritsiko da datozen ehun urteetan”.

Aurreko paragrafoa Meadows Txostenaren laburpen ezagunenetako bat da, ‘Hazkundearen mugak’, 1972an Erromako Klubak argitaratutakoa. Bada, kaleratu zutenetik mende erdi bete den honetan, baieztatu dezakegu egoera larri honen aurrean pasibotasun politikoa nagusitu dela.

Mundu mailako hamaika gailur antolatu arren, gaur egun klima-aldaketan ez ezik, krisi ekosozial oso larriak ere bagaude murgilduta. Krisi honek ondorio larriak ekarriko ditu kliman, lurretan eta uretan, eta gatazkak eta tentsio politiko eta sozialak izugarri handituko ditu. Dagoeneko arriskuan dago planetako Bizitzaren bideragarritasuna bera ere.

Hain zuzen ere, uste horretatik abiatuta, Espainiako Estatuko eta Latinoamerikako pertsona eta antolakunde desberdinak elkartu ginen Bilbon (Euskal Herria), **2022ko martxoaren 1etik 3ra bitartean, Bizitza Jokoan Kongresuaren baitan.**



Hainbat sektore sozialek, politikook zein akademiaren eta komunikazioaren arlokoak egiaztatu dugu planetari eragiten dioten indarkeriek natura suntsitzen dutela, eta ondorio zuzenak dituztela giza eskubide kolektibo eta indibidualen urraketan. Azken hauen ondorio nagusiak dira: kriminalizazioa; herritarren lekualdatze masiboak; eskubideen defendatzaileen erailketak; indarkeria feminizidaren areagotzea; ehun-sozialaren suntsitzea; eta gorroto-diskurtsoak, misoginoak eta arrazistak handitzea. Azken batean, bizitza duin baterako beharrezkoak diren baldintza material eta espiritualen degradazio sistematikoa.

Horregatik, Adierazpen hau egiten dugu:

1. egiaztapena. "Krisi klimatikoa eta ekologikoa giza eskubide kolektibo eta indibidualen krisia ere badira"

Azpimarratu nahi dugu harreman estua dagoela naturaren eskubideak urratzearen eta horren ondorio diren giza eskubide kolektibo eta indibidualen urraketan artean. Batak zein besteak etengabeko prozesuak dituzte ondorio, hala nola planetaren itzulezinezko ustiapena, pertsonen desplazamendu masiboak eta haien etxeen eta bizibideen erauzketa, goseteek eragiten dituzten lehorreak eta uholdeak, eta naturaren eskubideak zein giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonen kriminalizazio-prozesuak eta hilketak.

2. egiaztapena. "Partida honetan ez dago luzapenik eta galtzen ari gara"

'Hazkundearen mugak' txostena argitaratu zenetik 50 urte igaro direnean, bertan iragarritako ondorioak abiadura bizian baieztatzen ari direla ikusten ari gara; eta prozesu suizida honen lehengoratzeari hasteko aukerak amaitzen ari dira. Horregatik, ezinbestekoa da planetaren espoliazioan eta ustiapenean oinarritutako sistema ekonomiko, politiko, juridiko eta sozial hau eraldatzeko neurriak hartzea. Zentzu horretan, premia handikotzat jotzen dugu munduko leku gehienetan nagusi den erauzketa-ereduari berehala muga jartzea.

3. egiaztapena. "Krisi klimatikoa eta ekologikoa areagotzeak tentsio politikoak eta sozialak areagotzea dakar"

Pertsonen eta herrien bizi baldintzak sistematikoki okertzeak tentsio eta gatazka politikoak eta sozialak pizten ditu. Egungo sistema nagusia, desjabetzean oinarritutako metatze-ereduan sostengatzen dena, konbentzituratuta dago herri eta jendarte desberdinen gainean duen erabateko kontrolaz. Hala ere, baieztatzen dugu desberdintasun-arraketa etengabe sakontzeak elkarbizitzarako espazioen hausturak ekarriko dituela, eta munduko demokrazia eta bakea mehatxatuko dituela. Horren aurrean, berresten dugu krisi hauek laguntzen dituzten pobretze-prozesuen aurkako ekintza posibleek inplizituki ekarri behar dutela aberastasuna berehala premiaz birbanatzea, eta lehentasuna eman behar zaiola arlo publikoari interes pribatuen gainetik.

4. egiaztapena. "Denok gara erantzule, baina ez maila berean"

Azken urteotan, krisi klimatikoari eta krisi ekosozialari aurre egiteko kanpainen zuzen seinalatu dute jendartearen erantzukizun partekatua. Hala ere, hemen eta orain azpimarratu nahi dugu erantzukizuna ez dela berdina guztiontzat, eta errealitate hau nahita ezkututzen ari direla. Egungo sisteman, onura ekonomikoa besterik neurtzen ez duten elite ekonomiko eta politikoak dira naturaren eskubideak urratzearen eta giza eskubide kolektibo zein indibidualak bortxatzearen erantzule nagusiak. Hori dela eta, batzuei zein besteei eskatzen diegu, baita nazio mailako zein nazioarteko erakundeei

ere, prozesu horiek irauli ditzaten eta lehenetsi edo bermatu ditzaten aipatutako eskubideak; baina, ez politika publiko zein pribatuetan aintzat hartutako beste ardura bat bezala, baizik eta politika horiek planifikatzeko eta abian jartzeko lehentasun goren gisara.

5. egiaztapena. “Berdetik haragoko politikak eta neurriak”

Ados gaude trantsizio-politikak antolatu beharrearekin energiaren, elikaduraren, mugikortasunaren eta abarren sektoreetan; baina, lehen aipatu dugun bezala, denbora agortzen ari da eta trantsizio horiek egiteko epeak ahalik eta gehien murriztu behar dira. Zentzu horretan, gobernuek — tokikoak, autonomia-erkidegokoak zein estatu mailakoak izan — berehala definitu behar dituzte hurrengo pausuak eta erritmoak, interes ekonomizista hutsen arbitrariotasunetik kanpo, herritarren parte-hartzea bermatuz eta benetako demokrazia parte-hartzailea bultzatuz, jendartearen protagonismoa eta kontrola bermatuko duena.

Era berean, arlo politiko eta instituzional guztietan Giza Eskubideen eta Enpresen Zentroak sortzearen alde egiten dugu, gizartearen benetako partaidetza eta protagonismo eraginkorra oinarri hartuta. Ildo beretik, eskatzen dugu autonomia-erkidegoetako erakundeek, estatukoek eta nazioartekoek bultzatzen dituzten inbertsio-politikak, enpresen nazioartekotze-politikak eta merkataritza-akordioak koherenteak izan daitezen planetako giza eskubideen bermearekin, eta arreta berezia eskaini diezaioten emakumeen eta herrien giza eskubideak benetan betetzeari.

6. egiaztapena. “Garapen-eredua salbatzea ala natura salbatzea”

Azken hamarkadetako politiken pasibotasunak eta hazkundearen mugen aurrean dagoen itsutasunak ziurtatzen du, nahiz eta maiz ukatu edo itxuraldatu nahi izan, garapen-eredua salbatzeko ala natura salbatzeko aukeran murgilduta gaudela. Egiten dugun aukerak zehaztuko du, ez soilik planetaren oraina, baita oraingo eta etorkizuneko belaunaldiek benetan bizitza duin bat izango dituzten ala ez. Konponbide eta neurri horiek zehazteko unean den-denek egon behar dute, nazioarteko gobernu eta erakundeetatik hasi eta gizarte-mugimenduetaraino, baita zuzenean erasandako kolektibo, komunitate eta herriek ere, hala nola emakumeak edo herri indigenak eta beltzak.



7. egiaztapena. “Izan gaitezen ausartak, egin dezagun etorkizunera begirako apustua gure buruei tranparik egin gabe”

Benetako politikak, neurriak, legeak eta araudiak ezartzeko eskatzen dugu, egun natura ikusteko, ulertzeko eta jorrazteko dugun modua erabat irauliko dutenak. Horregatik, lurharen, lurraldearen eta ondasun naturalen defentsarako borrokak indartzearekin konprometitutako ekintza eta politikak ezarri behar dira, eta arreta berezia jarri lan horiek egiten dituzten emakumeen, komunitateen eta herri indigenen arrisku-egoera eta zaurgarritasuna arintzean, haien duintasuna eta segurtasuna bermatuz eta haien ibilbideak, jakintzak eta ekarpenak aitortuz Bizitzari gerra deklaratu dion eredu hau iraultzeko lan zailean.

8. egiaztapena. “Krisia egongo da, baina etorkizuna badago”

Elite ekonomiko eta politikoez ez dute sistema aldatu nahi. Eroso daude bertan, aberastasuna eta estatusa ziurtatzen baitie. Baina, denok dakigu berehalako eraldaketarik egon ezean planetaren etorkizuna dagoeneko bizi dugun eskubideen krisia (naturarena, emakumeena, herriena...) sakontzera kondenatuta dagoela. Beraz, eskatzen dugu ez daitezen gehiago atzeratu egungo sistema nagusitik beste sistema batera aldatzeko beharrezko transformazio guztiak; sistema bidezkoago bat, benetan demokratikoa eta eskubide guztiak errespetatuko dituen. Kontrakoak krisi politiko, ekosozial eta gizatiarrean baino ez gintuzke sakonduko, eta gizadi osoarentzat duina eta hedagarria den justizia sozialetik, ekitatetik eta etorkizunetik aldendu.

9. egiaztapena. “Sistema berehala eta sakon aldatu beharra dago, pertsonen, herrien eta naturaren Bizitzen Zaintzaren zerbitzura egon dadin”

Esaera batek dio “ezer ezin daitekeela mugarik gabe hazi mundu mugatu batean”. Horri jarraiki, lehen aipatutako eraldaketak bultzatzearen alde egiten dugu, sistema aldatzeko eta berri bat eraikitzeko, benetan izaki bizidunen eta bizitza sostengatzen duten prozesuen zerbitzura egongo dena. Horregatik, erakundeek eta gobernuek berehala sustatu behar dituzte politika publikoak ekoizpenean, kontsumoan eta inbertsioetan, eta hauek lehentasuna eman beharko diote arlo publikoari, komunitarioari, guztion ongiari eta krisi-klimatikoari aurre egiteko apustuari, planetaren muga ekologiko horiek aitortuta.

10. egiaztapena. “Lurrak eskubideak ditu, onar ditzagun eta jardun dezagun horien arabera”

Natura eskubideak dituen subjektu juridiko eta politikoa da, dagoeneko horrela aitortzen dute hainbat konstituziok eta legeek munduan zehar. Hori dela eta, gure ustez, lehenik naturako eskubideak aitortzea eta ondoren horiek benetan ezartzea funtsezko estrategietako bat izango da krisi klimatikoaren aurkako borroka errealean eta, beraz, giza eskubide guztiak, kolektiboak zein indibidualak, modu eraginkorrean erabiltzea ahalbidetuko du.

Planetaren eta gizateriaren etorkizunak berehala jardutea eskatzen digu, eta gure jendartearen indarra eta determinazioa dira horretarako bermea. Izan ere, argi eta garbi baieztatzen dugu gizarte osoak izan behar duela kide guztien ongizatea bermatzearen protagonista aktibo eta azken arduradun, bai eta benetako Bizi Onaren protagonista ere, planeta oso batean. Horrela bakarrik aterako dugu Bizitza Joko arriskutsu honetatik.

Bilbo - Euskal Herria
2022ko martxoaren 3a

Bai Kongresua eta bai Adierazpen hau ondorengo elkarteek kolektiboki eraiki dute:

IM-Defensoras - Iniciativa Mesoamericana de Mujeres Defensoras de DDHH

ISF Euskadi - Mugarik Gabeko Ingeniaritza

UK'UX B'E Elkarte Maya (Guatemala)

ZEHAR - Errefuxiatuekin

CEFREC - Fundación para el Desarrollo de la Comunicación Intercultural (Bolivia)

Deustuko Unibertsitateko **Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua**

LEB – Latinoamerikako Eskubideen Behatokia

Mugarik Gabe

BIZITZA JOKOAN DEKALOGOARI ATXIKIPENAK: “HERRIENTZAKO ETA PLANETARENTZAKO BIZITZA DUIN BATEN ALDE”

ADHESIONES DECÁLOGO BIZITZA JOKOAN “POR UNA VIDA DIGNA PARA LOS PUEBLOS Y EL PLANETA”

Plataformak eta sareak – Plataformas y redes:

- ✓ Euskadiko GGKEen Koordinakundea - Coordinadora de ONGD de Euskadi (agrupa a 79 Organizaciones No Gubernamentales de Cooperación vascas)
- ✓ Lafede.cat – Organitzacions per la Justicia Global – Catalunya (plataforma con 125 organizaciones federadas)

Elkarte eta kolektiboak - Organizaciones y colectivos:

- ✓ ADECO – Amistad, Desarrollo y Cooperación
 - ✓ Almaciga
- ✓ AlterNativa, Intercanvi amb Pobles Indígenes (Catalunya)
- ✓ ARPAS – Asociación de Radiodifusión Participativa de El Salvador
- ✓ Asociación de Investigación y Especialización sobre Temas Iberoamericanos – AIETI
 - ✓ Asociación Entrepueblos
 - ✓ Asociación Euskadi-Cuba
 - ✓ Asociación Paz con Dignidad
- ✓ Asociación Pro Derechos Humanos de España – APDHE
 - ✓ Calala – Fondo de Mujeres
 - ✓ Calcuta Ondoan
 - ✓ Cáritas-Bizkaia
 - ✓ CC.OO. Sindicato
- ✓ Centro de Culturas Indígenas del Perú Chirapaq (Perú)
- ✓ Centro de Iniciativas para la Cooperación Batá – CIC-BATÁ
 - ✓ Colectivo Madre Selva - Guatemala
 - ✓ Colectivo Unitario de Trabajadores – CUT (Aragón)
- ✓ Comisión de Derechos Humanos Hispano Guatemalteco – CDHHG
 - ✓ Comissió Catalana d’Ajuda al Refugiat
 - ✓ Corporación Ensayos (Colombia)
- ✓ ECMIA – Enlace Continental de Mujeres Indígenas de las Américas
 - ✓ Economistas Sin Fronteras
 - ✓ Ekologistak Martxan
 - ✓ ESK Sindikatua
 - ✓ Euskal Gune Ekosozialista

- ✓ Grupo de Etnografía y Estudios Sociales Aplicados (GEESA)-
Universidad de Castilla La Mancha
 - ✓ Haurralde
 - ✓ HEGOA Institutoa
- ✓ INCYDE, Iniciativas de Cooperación y Desarrollo
 - ✓ Itaka Escolapios
 - ✓ LAB Sindikatua
 - ✓ Lumaltik Herriak
 - ✓ Medicus Mundi – Bizkaia
 - ✓ Medicus Mundi - Gipuzkoa
- ✓ Movimiento por la Paz - MPDL
 - ✓ Mundu Bakean
 - ✓ Mundubat
- ✓ MUSOL – Municipalistas por la Solidaridad y el Fortalecimiento
Institucional
 - ✓ Oscarte
 - ✓ Peace Brigades International – PBI
 - ✓ Perifèries (País Valencià)
- ✓ Plataforma de Defensa de los Valles Pasiegos
 - ✓ PROYDE-PROEGA
- ✓ Red de la Economía Alternativa y Solidaria – REAS
 - ✓ Sagarrak Ekologista Taldea
 - ✓ Saharako Lagunen Elkartea
 - ✓ SETEM – Catalunya
 - ✓ SETEM – Hego Haizea
 - ✓ Sodepaz
 - ✓ STEILAS Sindikatua
 - ✓ TAU Fundazioa
- ✓ Tercera Edad para el Mundo/Hirugarren Adina Hirugarren Mundurako